

GEHIGARRI BEREZIA | 2022ko urriaren 28an | USURBIL |

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea. Sustatzailea: Usurbilgo Udala



EUSKARALDIA
2022
gehigarri berezia



Hitzez ekiteko garaia da



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Jarrera horrek euskararen ateak zabalduko dizkizu eta denon artean erabilera handituko dugu. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari:

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Adierazi euskararekiko prestutasuna:

Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere, nahi eta ahal beste erabili.
Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari:

Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak.
Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Egin lekua euskarari:

Adierazi (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula),
ekin (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin),
jakinarazi (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).



euskaraldia.eus

Aurtengo Euskaraldian izena emateko epea zabalik da

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egingo den Euskaraldian izena emateko epea jada zabalik dago Belarriprest eta Ahobizi gisa parte hartu nahi duen ororentzat. Euskaraldia hasi arte egongo da zabalik epea horretarako. Entitateek, ordea, urriaren 31 arte izango dute ariguneen berri emateko epea. Izen-ematea ez da Usurbilgo Euskaraldia taldearen bitartez egin beharko, Internet bidez baizik.

Bi hilabete baino gutxiago gelditzen dira Euskaraldia abian jartzeko, eta beraz, irailaren amaieraz geroztik izen-ematea zabalik dago. Irailaren 29an egin zuten Bilboko Kafe Antzokian aurtengo Euskaraldiaren aurkezpena, eta beraz, ordutik Euskaraldia hasteko egunak zenbatzen ari dira herriko euskaltzaleak eta arduradunak.

Euskaraldiaren web orrialdean

Aurten, ordea, aurreko urteetan izena eman zutenek, parte hartzea berretsi baino ez dute



“Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta modu horretan, euskararen erabilera handitzea da”. Argazkia, artxibokoa.

IZEN-EMATEA ZABALIK

“Izen-ematea Internet bidez egin beharko da euskaraldia.eus web orrialdean”

egin beharko, www.euskaraldia.eus gunean sartuta edo posta elektronikoan jasoko di-

tuzten mezuen bidez.

Aurreko edizioetan Usurbilgo Euskaraldia taldeak jarritako postuetan eman behar zen izena, baina aurten erraztu egin dute izen-emate prozesua eta edonork Internet bidez egin dezakeen prozesu bilakatu dute. Orain hasi eta ariketa bukatzen den arte Euskaraldian parte hartuko duten Belarriprest eta Ahobiziei informazioa eta

aholkuak ematen jardungo dute ekimena antolatzen ari diren Euskaraldia Usurbilgo kideek. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, “Belarriprest eta Ahobizi guztiek ariketa ahalik eta modu prestatu eta erosoenean” egitea nahi dute.

Usurbilgo eta gainontzeko herrietako batzordeak prestatu daude bi hilabete hauetako lanari ilusioz ekiteko.

“Elkarlana da Euskaraldiaren abiapuntua eta oinarria, eta honetan denok gara beharrezko”

Bingen Zupiria: “Ariguneen eragina handia da”

Euskaraldiaren aurkezpenean, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua eta bozeramaileak ariguneen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: “aurreko edizioan, 2020koan jarri genituen martxan Ariguneak. Pandemiaren momentu latzenetan geunden eta bagenekien ez zela erraza izango ariguneak martxan jartzea.

Baina hala ere, 8.000 egoitza baino gehiagok eman zuten izena Euskaraldian eta 24.000 arigune sortu ziren. Bide horretan jarraitu nahi dugu. Ariguneen eragina handia da, arigunea osatzen duten partaideengan eragiteaz gain, entitateen euskararen erabilera urrats berriak emateko abiapuntu izan daitezkeelako eta entitateetatik kanpora herritar multzo zabalagoetara heltzeko aukera ematen duelako”.

Ana Ollo: “Euskarak gero eta leku zabalagoa izan dezan”

Ana Ollo, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak Euskaraldiak izan duen bilakaera nabarmendu zuen: “uste dut oso bilakaera oparoa dela hiru edizio hauetan eman dena. Elkarlana da Euskaraldiaren abiapuntua eta oinarria, eta honetan denok gara beharrezko”, hitz hauek irailaren 29an egin zituen Bilboko Kafe

Antzokian, Euskaraldiaren edizio berriaren aurkezpen ekitaldian.

Izan ere, aurreko urteetako datuak eskuan, antolatzaileek uste dute Euskaraldiak martxan irauten duen egunetan, aldaketak gertatzen dira hizkuntza ohituretan eta praktika linguistikoetan, eta bide horretatik jarraitu behar dela aurten ere, “euskarak gero eta leku zabalagoa izan dezan”.



Kike Amonarriz Gorria

Euskaraldiaren garrantzia eta ahalmena

Gauean dugu Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Lehenengoak sekulako eragina izan zuen. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialak berrikuntza handia suposatu zuen ordura arte “euskararen alde” antolatutako egitasmoen aldean, Euskal Herri osoke erakundeek eta eragile sozialek elkarlanean antolatu zutelako, berrehun mila partaide baino gehiago izan ziztuelako eta milaka pertsonen beren gorputzetan sentitu ziztuztelako euskarara jauzi egitearen edo lehen hitza euskaraz egitearen sentsazioak, euskaraz egiteko konplizitate eta sare berriak sortu zirelako eta euskara agenda komunikatiboaren erdigunean kokatu zuelako. Bigarrenagoa, pandemia betean egin behar izan genuen, eta burutu ahal izatea bera sekulako arrakasta izan zen. Gainera, era guztietako entitateetan milaka arigune sortu ziren.

Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarraera baten adierazpena, jokia praktiko baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabileran aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala.



Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidentea da.

KIKE AMONARRIZ

“Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarraera baten adierazpena, jokia praktiko baten inguruko konpromisoa baizik”

Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboarena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori emateko baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, etab. Gutxien uste dugun pertsona,

giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako, baita Usurbilen ere!

Bestalde, era guztietako entitateetan ariguneak sortzea, hizkuntza biziberritze prozesurako oinarriak jartzea da. Batetik, entitate horietan euskararen erabilera erorako aukerak non dauden identifikatzen dugulako, eta bestetik, aurrera begira, normalizazio-prozesua abiatzeko edo indartzeko urratsa ematen delako.

Garrantzi handiko beste aspektu bat da, Euskal Herri osoan, beraz prestatzeko ehunka batzorde sortzea. Euskararen inguruko elkarterik edo bestelako antolakuntzarik ez duten herrietan, ahalik eta gehienak egonkortzea eta iraunaraztea dugu helburu, Euskaraldiaren ondoren ere, erabilera sustatzeko dinamikarekin jarrai dezaten.

Euskaraldia, azken batean, heldulekua da, palanka, abiapuntua. Inertziak puskatzeko heldulekua da, erabileran urrats bat aurrera eman nahi duten

pertsona edo entitate guztientzat. Eta aitzakia egokia, euskarari buruz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko. Palanka da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako. Ez da manifestu bat sinatzea eta kito. Hausnarketa kolektibo izugarria ere bada Euskaraldia, non pertsonen eta erakundeen kontraesanak ere agerian geratzen diren: jarreraren eta praktikaren arteko kontraesanak, nahia- ren eta portaeraren arteko distantziak. Eta abiapuntua izan nahi du, egun horietako lorpenak eta dinamikak iraunaraztea baita ariketa honen helbururik behinena.

Badakigu, izango ditugun lorpenetatik batzuk mantendu egingo direla eta beste batzuk inertziak jango dituela, baina aurreko Euskaraldiek erakutsi diguten bezala, buka- tu eta hilabeteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da. Ariketa bakoitzean, partaideek helburu berriak lortzen dituzte eta partaide berri asko integratzen dira lehen aldiz. Horregatik, jarraitu beharko dugu Euskaraldiarekin “kolpeak” bi urtez behin ematen, eta tartean, euskararen erabilera sustatuko duten bestelako egitasmoak bultzatzen, Usurbilen eta Euskal Herri osoan.

Honengatik guztia- rengatik, eman izena Euskaraldian. Hitzek ekiteko garaia da!

Komikia



Zein naiz ni? Belarriprest? Ahobizi akaso?

Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ere, orain arte ondo ezagunak diren hiru rolen artean aukeratu beharko dute herritarrek. Baina zein naiz ni? Belarriprest, agian? Ahobizi, akaso? Arigunea beharbada? 16 urte baino gehiago beharko dira parte hartu ahal izateko, hori kasu guztietan. Horra rol bakoitzaren nondik-norakoak eta baldintzak.

Belarriprest

Horrela definitzen dute Euskaraldiko arduradunek Belarriprest izan daitekeen norbaiten rola: “Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan”.

Belarriprest izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin, jokaera kontua da. Dakienari euskaraz hitz egiteko gonbidapena luzatu nahi dietenentzat da egokiena belarriprest rola.

Horra adibide batzuk modu praktikoa belarripresten rola ulertzeko. Marenen kasua da honakoa: Marenek urte asko daramatza Usurbilen bizitzen, baina euskara ondo dakien arren ez du askotan hitz egiten. Maren belarriprest izango da eta gustura eramango du txapa paparrean, berari euskaraz egitea nahi baitu hala egin nahi dutenak babesteko. Bere ekarpena horraino emateko prest eta gogoz dago. Kontuan izatekoa da Maiteren kasua ere belarriprest aukeratu edo ez dauden horientzat: Maitek badaki euskaraz, baina laneako zenbait bezerorekin ez da eroso sentitzen elkarrizketa elebidunak mantentzen. Beraz, belarriprest izango da, eta nahiz eta batzuetan erdaraz egin,



16 urte baino gehiago behar dira Euskaraldian parte hartu ahal izateko.

BELARRIPREST

“Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan”

saiatuko da ahal bezain beste euskaraz egiten. Azkenik, Etumeta euskaltegikoa izan daitekeen Eneritzen kasua: Eneritz euskara ikasten ari da; ulertu, ulertzen du, baina ez da hitz egiteko gai sentitzen. Belarriprest izango da eguneko ordu eta leku guztietan, eta eroso sentitzen denetan euskaraz erantzuten saiatuko da.

Ahobizi

Horrela definitzen dute Euskaraldiko arduradunek ahobizi izan daitekeen norbaiten

AHOBIZI

“Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Ulertzen oten duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot”

rola: “Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen oten duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean”.

Orain arte euskaraz izandako elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute; baina, orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz

edo elebidunez izatea ere lortuko du. Jarrera aktiboa izango du, beraz. Harreman sarean dituen hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera duen horietan eragingo du. Hizkuntza aldaketarako aukeratutako harreman horietan ezezik, bizitzako esparru guztietan euskaraz arituko da, ahal den guztietan, ahal duen guztiekin. Bi aldeek euskaraz ulertzen badute, ez dago euskaraz ez egiteko arrazoirik. Ahobizi eta belarriprest ugari izango baititu inguruan.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik. Ahal duen guztietan euskara erabiltzeko prest dagoenarentzat da rolik egokiena Ahobizi.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik. Ahal duen guztietan euskara erabiltzeko prest dagoenarentzat da rolik egokiena Ahobizi.

Entitate gisa parte hartzeko epea urriaren 31n amaituko da

Maiatzean ireki zen entitateek ariguneak osatu eta ariketan izena emateko aukera, eta oraindik ere urriaren 31a arte mota guztietako entitateek (denda, elkarte, kirol-talde, enpresa edota erakunde) aukera izango dute ariguneak identifikatu eta Euskaraldian talde moduan parte hartzeko.

Ariguneetan, gune antolatu eta finko gisa, hizkuntzaren arloan taldeak hartutako erabakiek zuzenean eragiten diete bertako kide guztiei –bakoi-tzaren praktika babestuz- eta zeharka, berriz, ingurukoei. Gainera, arigune horiek babes-teko eta sustatzeko konpromisoa eskatuko zaie erakundeei, eta, epe luzerako helburuez ari garenez, ariketa amaitzean hizkuntza-ohiturak aldatzeko hartutako pausoak egonkortzeko gonbita egingo zaie.

Behin ekimenaren berri izanda, zuzendaritza edo arduradunen lana izango da Euskaraldiak egiten duen proposamena aztertzea. Ekimenean parte hartu ala ez erabakitzerako orduan, zenbait baldintza hartu behar dituzte kontuan: entitatean ariketa egiteko baliabideak ja-



Entitateak duela bi urte hasi ziren Euskaraldian parte hartzen. Ordukoa da argazkia.

ENTITATEAK

**Entitateek
hizkuntza-ohitura berriak
finkatzeko prestutasuna
agertu behar dute**

ri eta arduraduna(k) izendatu beharra, eman beharreko urratsak jarraitzea, autonomiaz aritzea laguntza-tresnak baliatuta, ekimenaren denboretara egokitu beharra eta, batez ere,

entitatean hizkuntza-ohitura berriak finkatzeko prestutasuna izatea.

Entitatearen zuzendaritzak proposamena onartu eta aurrera egitea erabakitzen badu, lehenengo zeregina entitatean arigune izateko baldintzak dituen talderik ote dagoen aztertzea izango da. Ariguneetan gutxieneko baldintza da bertako kide guztiek euskara ulertzea; hortaz, entitatean dauden taldeak identifikatu eta horietan dauden kideek uler-

tzen duten aztertu beharko du arduradunak. Azterketa hori errazteko, arigune posibleak identifikatzeko prest dagoen tresna erabil dezakete entitatearen arduradunek. Tresna horren bidez, entitate barruan euskara ulertzeko gai diren kideak identifikatu eta entitate barruan non kokatzen diren ikusteko aukera izango dute. Arduradunek entitatean ariguneak sortu eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko benetako aukerak ezagutuko ditu.

Ariguneetan, euskara izango da lehentasunezko hizkuntza

Euskaraldiaren bigarren edizioan izena eman zuten entitateek orduko izen-emate fitxa aurtengo datuekin eguneratu beharko dute: arigune kopurua, horietako kide kopurua, entitatearen kontak-tua... Lehenengo aldiz parte hartuko dutenek, berriz, izena eman beharko dute. Behin hori eginda, intraneterako sarbidea izango dute, eta ber-

tan, izen-emate fitxategian datuak aldatzeko aukera izango dute.

Behin izena emanda eta Euskaraldia hasi aurreko urrats guztiak emanda, izendatutako ariguneetan kideek eta taldeak hartu duten erabakia praktikara eramango dute Euskaraldiak irauten duen bitartean. Beraz, euskara izango da lehentasunezko hizkuntza. Parte hartzai-

leek, Ahobizi zein Belarriprest modura, hizkuntza-ohiturak euskaratzeko praktika kontzientea egingo dute.

Ahobiziek euskaraz egingo dute euskara ulertzen duten kide guztiekin. Belarriprestek, berriz, aldiro erabakiko dute zein hizkuntza erabili eta haiekin euskaraz egiteko eskatuko diete dakitenei.

Euskaraldia amaitu eta

gero, ekimenaren eta ariketa sozial osoaren balorazioa egingo dute entitateek. Horretarako, gida proposamena jarriko dute eskura antolatzaileek. Azkenik, prozesuan hartutako neurri-rik mantentzeko aztertuko dute zuzendaritzak eta arduradunek edota kideek hizkuntza-praktika berriak posible egin daitezen.

Norbanakoek bezala, entitateek ere izena eman behar dute aldeaz aurretik

Gogoan izan ariguneetako kideek Euskaraldian parte hartzeko norbanako bezala izena eman behar dutela. Alegia, ez da nahikoa ariguneetako kide izatearekin bakarrik. Pertsona horiek aktiboki eman beharko dute izena Euskaraldiaren webgunearen bitartez: www.euskaraldia.eus. Aurten, izen-ematea errazte aldera Internet bidez eman beharko da izena Usurbilgo Euskaraldia taldearen mahaira hurbiltzeko beharrik gabe.

Izena eman, datuak eguneratu, lehentxoago aipatutako tresnak edota baliabideak eskuratu ahal izateko <https://euskaraldia.eus/arigunea/entitateen-izen-ematea/> webgunera jo beharko da, bai eta denetarikoz zalantzak argitu eta informazio osoagoa eskuratzeko ere.



Zumarte Musika Eskolak entitate gisa hartu zuen parte duela bi urteko Euskaraldian.

2020an Usurbilgo 29 entitate animatu ziren

Euskaraldia azaroaren 18an abiatuko da eta abenduaren 2ra arte luzatuko da. 15 egunez, Ahobizi edo Belarriprest roletan parte hartzeko deia egin zaie herritarrei. Dagoneko izen-ematea zabalik da euskaraldia.eus web orrialdean. Entitateek ere izen eman behar dute baina kontuan izan behar dute urriaren 29a baino lehen eman behar dutela izena.

2020ko entitateak

Duela bi urteko Euskaraldian, hauek izan ziren entitate gisa animatu zirenak:



Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba izan zen Euskaraldiarekin bat egin zuen entitateetako bat.

AEK, Aginaga Herri Eskola, Aitzaga taberna, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Koo-

peratiba, Ane ileapaindegia, Artzabal, Bidelan Gipuzkoako Autobideak S.A., Biyok 24

ordu, CIFP Usurbil LHII, Elhuyar Fundazioa, Fagor Automation, Gestion de Servicios Residenciales (GSR), Hurbilago Usurbilgo merkataria eta ostalarien elkartea, Ikaslan Gipuzkoa, Intza Ile-Apaindegia, Kabiene, Laboral Kutxa, Laneki elkartea, NOAUA! Kultur Elkartea, Orbeldi Dantza Taldea Elkartea, Pello Arraindegia, Saizar Sagardoa, Santueneko Zaharren Egoitza Taberna, Udarregi Ikastola, I.K.E., Urbil merkataritza-gunea, Usurbil KE, Usurbilgo Udala, Zumarte Musika Eskola.

“Euskaraldiaren ariketa 24 orduz mantenduko bada, ariguneak ezinbestekoak dira”

Xuban Zubiriak Euskaraldiko Koordinazio Batzorde Orokorrean lan egiten du. Entitateen eremuan ari da lanean, batez ere. Entitateek izen emateko duten epea amaitzera doa hilaren 31n eta NOAA!rekin partekatu nahi izan ditu gai honi buruzko jakintzak.

Euskaraldian ari zara entitateekin lanean, baina zer egiten duzu zehazki?

Xuban Zubiria: Entitateen arloan ariguneak are eta gehiago zabaltzen ari gara. Aurreko edizioan martxan jarri ziren, baina pandemia garaia zen eta ia etxetik atera ezinda egon ginen. Beraz, zaildu egin zen lanketa. Ariguneak sortuta entitateen barruan euskaraz lasai aritzeko espazioak sortu nahi ditugu. Badu beste helburu bat ere, norbanako gisa Euskaraldira gerturatzea zaila duten pertsonen ariguneen bidez Euskaraldian parte hartzeko aukera eman nahi diegu. Ulertzen duten horiek euren enpresetan ere aukera izan dezaten euskaraz aritzeko eta pixkanaka normalizatzeko. Euskal Herri osoan egiten den ekimena izanik, enpresa askotan jendeak



Xuban Zubiria Euskaraldiko Koordinazio Batzorde Orokorrean ari da lanean, entitateen eremuan.

XUBAN ZUBIRIA

“Ariguneak sortuta, entitateen barruan euskaraz lasai aritzeko espazioak sortu nahi ditugu”

euskaraz aritzeko aukera du, baina etxean ez. Modu honetara lortzen dugu zailtasunak dituzten horiek ere euskarara

hurbiltzea eta euskara zabal-tzea.

Zein funtzio betetzen dute ariguneek Euskaraldian?

Ariguneak bigarren edizioan sortu ziren, baina lehenengoan ez zeuden. Hausnarketa hau etorri zen ikusi genuenean norbanakoek parte hartzen zutela, baina enpresetan falta zela lotura hori. Batzuetan

norbanako modura izena ematean gertatzen da enpresan inertziak erdarara jotzeko joera hori. 24 orduz egin beharreko ariketa da Euskaraldiak proposatzen duena eta egunero 8 bat orduz lantegian egon behar badugu, ez du zentzu handirik ariketa egitea lanetik kanpo, baina bertan ez. Ariguneak ezinbestekoak dira ariketa hori 24 orduz mantenduko bada.

“Ekidin nahi duguna da Euskaraldia lanera mugatutako ekimena izatea”

Entitateez ari garenean, neurri eta maila guztietako enpresaz eta elkarteez ari gara?

Entitateak entzuten dugunean enpresa handiak dagozkigu burura eta lantegi industrialak, baina entitate kontzeptua hori baino askoz zabalagoa da. Entitateak izan daitezke Fagor enpresatik

hasi eta Usurbil FTn amaituta. Lanketa bide ugari ireki ditugu ezberdintasun horiei aurre egiteko. Uda hasieran martxan jarri genuen lanketa Eroski edo Kutxabankek dituen egoitza guztiak kudeatu ahal izateko. Momentu honetan denetik daukagu: kirol taldeak, ikastetxeak... Behin izena eman

ondoren, material asko sortu dugu. Ikastetxeentzat bideo-tutorialak sortu ditugu 16 urtetik gorako ikasleekin eta ikastetxeko langileekin partekatzeko. Kirol taldeekin ere bideo-tutorial bereziak sortu ditugu eta enpresa handiagoekin denetarikoa bideak erabili ditugu sindikatuen bidez eta

mota guztietako eragileekin. Ekidin nahi duguna da Euskaraldia lanera mugatutako ekimena izatea. Aisialditik zein hezkuntzatik eta bestelako taldeetatik zabaldu nahi dugu. Urriaren 31ra bitarteko epea daukagu izen emate hori ahalik eta zabalena izateko.

Xuban Zubiria: “Kantitateari baino kalitateari eman nahi diogu garrantzia”

Gipuzkoa herrialderik euskaldunenetarikoa izan daiteke, baina baditugu horren euskaldunak ez diren herrialdeak ere. Denetara iristea lortzen ari al zarete?

Lanketa nazionala denez, herrialde bakoitzaren erritmoetara moldatzen saiatzen gara. Araban euskara elkarte asko daude eta horiek ari dira lanketa egiten. Euskara edo euskaltzetasuna ahulago dagoen lekuetan lekuko batzordeek dute garrantzia handiena. Koordinazioa Batzorde Orokorretik saiatzen gara zazpi lurraldeetara iristen eta ahulago dauden leku horietan herri batzordeekin lana ere eta handiagoa zailtasunak ere handiagoak direlako haien zat eta errazago hel diezaizoten Euskaraldiari.

Nolako erantzuna izaten ari dira entitateak?

Hirugarren edizioa denez, badakigu nola neurtu erantzun hori. Jendeak emaitza kuantitatiboei begiratzen die, hau da, zenbakiei erreparatzen die. Guk garrantzia zenbakiei baino kalitateari eman nahi diogu. Kantitatea izugarria izanda ere, rolak behar bezala mantentzea



Xuban Zubiriak adierazi digunez, “indartsu jarraitzen du Euskaraldiaren espirituak”. Artxiboko argazkian, Hurbilagoko ordezkariak. Duela bi urte arigune ugari osatu ziren herriko saltokien baitan.

XUBAN ZUBIRIA

“Ariketak funtzionatuko badu, kalean txapak ikusi beharko ditugu.

Izen eman dezatela orain arte parte hartu ez dutenek eta berretsi dezatela aurreko edizioetan hala egin zutenek”

da garrantzitsuena.

Oraindik ez dauzkagu datu kuantitatibo horiek, baina ikusita zenbat batzorde sortu diren herrietan eta martxan jarri direla lanketa berezituak, badirudi indartsu jarraitzen duela Euskaraldiaren espirituak eta ahalegina egiten ari gara azken egun hauetan. Ariketak funtzionatuko badu, kalean txapak ikusi beharko ditugu.

Izen eman dezatela orain arte parte hartu ez dutenek eta berretsi dezatela aurreko edizioetan hala egin zutenek ariketa honek jarrai dezan eta ariketak egiten jarrai dezan. Datuekin ez gaude obsesionatuta, baina saiatu nahi dugu bide guztietatik ahalik eta jende gehien animada dadin kalean txapak izan eta ariketa behar bezala egin dadin.

“Saiakera berezia egin nahi dugu jendeak etxeetan banderatzakoak jartzeko”

Nolako Euskaraldia espero duzue aurten?

Espero duguna da kaleak hartzea, lehen edizioan ikusi zen bezala.

Bi asteren faltan, ekimen ugari egingo dira herrietan girotze-lana egiteko eta azaroaren 18ko astebururako txapak kalera ateratzeko. Pan-

demian etxean egoteak harremantzeko zailtasunak sortu zizkigun aurreko edizioan eta oso zaila izan zen ariketa egitea. Zer esanik ez ariguneen kasuan enpresa ugari itxita zeudela. Oraingo honetan enpresetan ariguneak lanean ikusi nahi ditugu eta ea aukera daukagun enpresetan ariketa

behar bezala egiteko.

Euskaraldiari lotutako ‘merchandisinga’ izango al da aurten? Kamisetak, jertseak, banderatzakoak...

Informazioa nahi duen jendeak webgunean eskuragarri du informazioa eta bertan kamiseta eta bestelako produktuak esku-

ratzeko aukera ere izango da. Saiakera berezia egin nahi dugu jendeak etxeetan banderatzakoak jartzeko.

Herriko batzordearekin harremanetan jar daitezela bandera nahi dutenek eta ea kalea girotzen dugun eta ariketa indartsu bat egiten dugun.

Jone Alduntzin, Belarriprest: “Koherente izan nahi dut neure buruarekin”

Hilabete barru Usurbil eta Euskal Herria Ahobizi eta Belarriprestez beteko da. Usurbilen ere jendea txapa paparrean jarrita ikusteko aukera izango da. Jone Alduntzin herritarra orain arte Ahobizi izan da, baina orain rola aldatu eta Belarriprest txaparekin agertuko da. Aldaketa horren nondik-norakoen berri eman digu elkarrizketa honen bidez.

Euskalduna zaitugu, baina aurten Euskaraldian Belarriprest izatea erabaki duzu. Nolatan hori?

Jone Alduntzin: Nire egunerokotasunean baditut eremu batzuk erabat euskaldunak ez direnak. Inguru erdaldunetan ere ibili behar izaten dut, bai eta nazioartekoagoan ere. Eremu profesionalean, batez ere. Nire ama-hizkuntza euskara da eta euskaraz hitz egiten dut, baina eremu batzuetan euskara ez zait atera ere egiten. Eremu horietan saiatu ere ez naiz egiten. Beraz, Belarriprest hautatzea logikoagoa iruditu zait, Ahobizik eskatzen dituen bete beharreko puntu horiek ez ditudalako betetzen. Eremu profesional horretan norbaitek



Aurretik Ahobizi izan bada ere, orain Belarriprest txaparekin plazaratuko da.

JONE ALDUNTZIN

“Eremu profesionalean, norbaitek Belarriprest txapa ikusten badit, agian euskaraz hitz egitera animatuko da”

Belarriprest txapa ikusten badit, agian, euskaraz hitz egitera animatuko da eta hori bilatzen dut. Belarripresten beste profil bat erakutsi nahi dut, rol hori

ez lotzeko soilik euskaldun berriari.

Aurreko bi edizioetan ere belarriprest izan zinen?

Ahobizi izan nintzen aurreko bietan. Aurten, lanean hasi naitzenetik antzeman dut aldaketarik handiena nire hizkuntza ohituretan eta horregatik aldaketa. Unibertsitatean ere batzuetan euskaraz egiten dut eta besteetan gazteleraz. Zen-

tzu horretan nahiko esleituta daukat norekin egin hizkuntza batean eta norekin bestean. Ahobizik lehen hitza beti euskaraz egitea eskatzen du edo hori da rol horren zeregin nagusia eta nik esfortzu hori ez dut egiten askotan. Euskaraz ondo egiten dudalako eta euskaldun zaharra naizelako ez dut zertan Ahobizi izan beharrik. Koherente izan nahi dut neure buruarekin.

Eremu profesionaletik kanpo, zein eremutan egiten zaizu zailen euskaraz egitea lehen hitz hori?

Normalean ezagutzen ez ditudan pertsonekin aurreiritziekin jokutzen dut. Euskaldun itxura hartzen badiot euskaraz haste-ko joera dut. “Kaixo edo aupa” bat beti esaten dut, baina orain Txiriboga tabernan lan egiten dut eta hor normalean jakiten dut zeintzuk diren euskaldunak eta zeintzuk erdaldunak. Ez dakidanean nola hitz egiten duen, kaixo esaten dut, baina gero gaztelerara jotzen dut askotan. Hala ere, antzematen badut euskalduna dela euskaraz egiten diot. Ez dut neure burua presionatzen euskaraz egitera beti bai edo bai.

“Zirrara sortzen du gutxien espero duzun lekuetan jendea Euskaraldiaren txapa soinean duela ikusteak”

Ahobizi eraman duzun aurreko bi edizioetan rol hori behar bezala bete duzu?

Jone Alduntzin: Saiakera bat denok egiten dugula uste dut. Kontzientiazio hori sortzen du eta Euskaraldia dela badakigunez, ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara. Nik na-

baritu nuen aldaketa hori nire baitan.

Aurtengo edizioan zer espero duzu?

Euskaraldia ekimen jendetsua da eta zeresana ematen du. Gure inguruan ez da horrenbeste nabaritu orain arte guk

beti euskaraz egiten dugulako. Ilusioa egiten du herritik kanpo edo beste eremu batzuetan jendea txapa jarrita ikusteak. Ikusgarri egiten du jendeak euskaraz erabiltzen duen edo badakien eta zirrara sortzen du gutxien espero duzun lekuetan eta pertsonengan txapa jarrita

ikusteak. Nik neure eremuan ez dut horrenbesteko aldaketarik nabaritu, baina bai unibertsitateko irakasleengan, esaterako.

Ikuspegi zabalago batetik bai ikusi ditut aldaketak, baina neure eremu horretan gutxiago.

Ugaitz Agirre, Ahobizi: “Euskaraldiaren txapa identifikaziorako tresna ederra da”

Ezaguna da Ugaitz Agirre idazlea herrian eta zenbaitek euskara jatorra erabiltzearekin lotuko du zuzenean. Euskaraldia gainean da eta idazlearekin izan gara horren gainean dituen usteak eta irudipenak biltzeko.

Euskal hiztun eta idazle ere bazara. Ahobizi txaparekin ikusiko zaitugu aurtengo Euskaraldian ere?

Ugaitz Agirre: Orain arte ez dut pentsatu bat edo beste izango naizen. Ziur aski inertziak Ahobizi aukeratuko dut. Euskaraz hitz egiten dut nire egunerokotasunean eta hiztunaren arabera erabakitzen dut euskaraz edo erdaraz egin. Euskaraz hitz egitera animatzen bada euskaraz egiten diot eta ez badu bere burua prest ikusten, berriz, erdaraz egiten dugu.

Lehen hitza beti euskaraz egitearen konpromisoa hartuko duzu. Non edo noiz egiten zaitu zailena konpromiso horri eustea?

Zaila izaten da askotan ezagutzen ez duzun lekuan eta eza gutzen ez dituzun pertsonekin nola hasi erabakitzea. “Arrotz” sentitzen naizen leku horietan



Identifikaziorako tresna ederra izanik ere, “Euskaralditik kanpo txaparik ikusten ez dugunean esfortzu bera egiten saiatzen ez bagara, alferrikakoa da”.

UGAITZ AGIRRE

“Zaila izaten da askotan ezagutzen ez duzun lekuan eta eza gutzen ez dituzun pertsonekin nola hasi erabakitzea”

zaila da lehen hitza euskaraz egitea. Seinaleak beti egoten dira jakiteko lekua edo giroa euskalduna den edo euskaltzalea behintzat. Kaixo batekin

ekiten diot beti elkarrizketari eta hortik aurrerakoa bestearen esku uzten dut. Mantsoago hitz egin behar bada edo elebidunez ez dago inolako arazorik. Beste batzuetan ez da inolako seinalerik egoten giroa nolakoa den jakiteko eta hor saiatzen naiz geroz eta gehiago lehen hitza euskaraz egiten, baina beti ez da erraza. Kontzientziazio hori badut hizkuntzarekiko, baina onartu

beharra daukat batzuetan alferkeriaren ondorioz erdarara ere jotzen dudala azaldu dudana azken kasu horretan edo antzeko egoeratan.

Txapa jarrita eraman duzun momentu horietan rol hori behar bezala bete duzu?

Baietz esango nuke. Bigarren edizioa egin zenean askoz ere errazagoa egin zitzaidan rola behar bezala betetzea, pandemiaren ondorioz herritik ezin ginen atera ere egin edo justu-justu ondoko herritara joan gintezkeen. Usurbilen dena euskaraz hitz egitea nahiko erraza da ez dakitenek ere ulertzen dutelako. Ni mugitzen naizen eremuetan behintzat hala da. Lagunei, ordea, entzun izan diet zaila dela lan-tegi askotan euskara hutsean aritzea leku askotako jendea egoten delako. Nik zailena unibertsitatean izan nuen doktoretzarekin nenbilela irakasle bat baineukan euskaraz ez zekiena, doktoretzako tutorea, hain zuzen. Txapa identifikaziorako tresna ederra da, baina Euskaralditik kanpo txaparik ikusten ez dugunean esfortzu bera egiten saiatzen ez bagara alferrikakoa da.

“Euskara irakaslea naiz eta hor ere beste rol bat dut”

Euskaraldiak hausnarketaren bat egitera bultzatu al zaitu?

Ugaitz Agirre: Lehen edizio hartan hausnartu nuela esango nuke. Galdeketa bat bete behar zen. Euskaraldia bukatu eta handik hilabete batzuetara galdeketa egin behar zen eta pautak batzuk ere ematen zituen dokumentu hark egunerokotasunean hizkuntza ohitura horiek aldatzeko. Bi-

garren edizioaz gogoratzeko ere arazoak ditut, pandemia garai arraro haietan. Inertziak egin nuen urte hartan, ekimena mantentze aldera.

Zer sentiarazten dizu kalean jende txapa jarrita ikusteak?

Aurreko edizioek ez naute gehiegi harrapatu Usurbildik kanpo, eta beraz, sorpresa gutxi eraman ditut. Aurtengo, agian,

ez nau horrenbeste denboraz herrian harrapatuko eta aukera gehiago izango dut beste leku batzuetako egoera ikusteko. Euskara irakasle lanetan nabil eta hor beste rol bat ere badut. Jendea euskara ikasi nahian dabil gero erabiltzeko asmoz eta hori bultzatzea nire lana da.

Bestetik, eta hau nire iritzia da, pixkanaka gaztelerari gure elkarrizketetan sartzen uzten

badiogu ez da atzera bueltarik izango. Hitz batekin hasi, esaldi batekin jarraitu eta pixkanaka gaztelerari hutsean hitz egitera iritsiko gara modu horretan. Hori erabat ekiditen saiatzen naiz, eta ez Euskaraldiaren baitan bakarrik, baizik eta egunerokotasunean. Euskaltzale izan eta inguru euskaldun batean bizita, iruditzen zait hori dela egin beharrekoa.

Oxkar Santamaria: “Euskaraldiarekin batera ‘Hikaldia’ antolatuko dugu”

Hitanoaren erabilerak behera egin du azken hamarkadetan. Usurbilgo Euskararen Aholku Taldeak konponbidea jarri nahi dio beheranzko joera honi eta iaztik hona hainbat ekimen sustatu ditu. Euskaraldiarekin bat eginez, Udalak Hikaldia iragarri du. “Jendeari bultzadaxoa ematea gustatuko litzaiguke, transmisioaren haria ez dadin eten”. Oxkar Santamaria Euskara zinegotziak eman dizkigu kanpaina berri honen inguruko xehetasunak.

Usurbilgo Euskara Aholku Taldeak Hikastea antolatu zuen iazko abenduan. Era askotako ekintzak prestatu ziren egun horietarako propio: hitzaldi bat, lehiaketa bat, hikodromoa eta kontzertu bat. “Edozein (h) ikaratzeko moduko egitaraua” zela esan zen. Aurten antzeko proposamenik egiteko asmorik al duzue?

Hitanoa sustatzeko nahia aspaldikoa dugu, eta iaz oinarria jarri besterik ez genuen egin. Zuk aipatutakoez gain, besteak beste, patrikarako liburuxka kaleratu genuen, eta iruditzen zaigu horrek helduleku aparta eman digula hutsetik abiatu



“Hikaldian parte hartu nahi duenak hikaldia.eus atarian eman dezake izena”.

OXKAR SANTAMARIA

“Hika aritu nahi duenari ‘H’ arrosa jarriko diogu Euskaraldiko txapan, eta, hartara, solaskideari hika aritzeko prest dagoela adieraziko dio, menperatu ala ez”

edota ditugun beldur eta zailtzak uxatzen hasteko.

Hala, aurten hari tiraka segitzea da helburua, eta horretarako, Euskaraldiarekin batera

‘Hikaldia’ antolatuko dugu. Hika aritu nahi duenari ‘H’ arrosa jarriko diogu Euskaraldiko txapan, eta, hartara, solaskideari hika aritzeko prest dagoela adieraziko dio, menperatu ala ez.

Hikaldian parte hartu nahi duenak hikaldia.eus atarian eman dezake izena.

Hikaldia Euskaraldiaren egunean egiten bada, biak sinkronizatzeke asmoa izango duzuela ondorioztatu dezakegu. Beraz,

Usurbilgo Euskaraldiaren egitarauaren bereizgarrietako bat hori izango da, ezta?

Hori da, bai. Bereizgarria baino pizgarria izatea nahi dugu. Berriki egin dituzte publiko Usurbilgo hitanoaren erabileraren datuak, eta nabarmena da joera beherakoa dela, alegia, gero eta gutxiago egiten dela gurean. Horregatik, eta ikasteko grina egon badagoela jakinik, jendeari bultzadaxoa ematea gustatuko litzaiguke, transmisioaren haria ez dadin eten.

“Hitanoa, hizkuntzaren bereizgarri zoragarri hau hauspotu nahi dugu”

Hikarekiko interesa beste lurralde batzuetara zabaltzen hasi dela dirudi. Aurten go Euskaraldiaren aitzakian, Goierriko gazteek elkarri hika erakutsiko diete eta, bide batez, euskararen inguruan saretxuko dira.

Oso pozgarria da hizkuntza-

ren ezagutza eta erabileraren inguruko kezka elkarlanerako aukerak ere sortu dituelako hala.

Hikaldia Oiartzunen, Azpeitian, Oñatin eta Goierriin ere egingo dute guk dakigula behintzat, eta horrek ariketa hedatzen eta haren eragina

biderkatzen lagunduko digu, ziur.

Bai, esanguratsua beste herrietara kezka sortu izana, eta zentzu horretan... Gurean datuek okerrera egin dute... Be-launaldi berriek ez dute...

Lehen esan bezala, esanguratsua da hitanoaren transmi-

sioan eta erabileran izan den atzerakada. Etena gertatu da esparru askotan, eta, esaterako, egun oso gutxi dira noka aritzen direnak.

Hizkuntzaren bereizgarri zoragarri hau hauspotu nahi dugu, hizkuntza bezain geurea dugulako.

“Norbanako zein entitateen beharra du Euskaraldiak arrakastatsua izan dadin”

Duela urtebete ‘Patrikarako hitanoa’ liburuxka plazaratu zuen Usurbilgo Udalak. Zer nolako harrera izan du? Honi lotuta, liburuxka eskuratzeko interesa duenak non eskura dezake?

Harrera ona izan duela ematen du, bai. Asko dira aldeko komentarioak egin dizkigutenak. Azken batean, jendeak, oro har, oso gertu sentitzen duen zerbait dela uste dugu, eta liburuxkak nolabaiteko babesa eman diela.

Liburuxka bera Usurbilgo Udalaren webgunean dago eskegita, baina fisikoki ere banatzen jarraituko dugu. Nahi duena Euskaraldiko batzordearekin jar liteke zuzenean harremanetan, eta, bestela, izen-emateak sustatzeko jarriko ditugun mahaian ere banatuko ditugu.

Sentsibilizazio kanpaina honi lotuta omen dago ‘H’ itsasgarriaren kanpaina. Honi buruzko xehetasunik emango al zenigukete?

Aurrez aipatu bezala, Hikaldiaren bereizgarria izango da ‘H’ itsasgarria. Hikaldian parte



Oskar Santamaria Euskara zinegotziak azaldu digun moduan, “argi izan behar dugu Euskaraldia ariketa dela, beraz, parte hartzen duenak hura betetzeko konpromisoa hartzen duela”.

OSKAR SANTAMARIA

“Patrikarako hitanoa liburuxkak harrera ona izan zuen. Asko dira aldeko komentarioak egin dizkigutenak”

hartzen duenak Euskaraldiko bere rolaz gain, hika aritzeko prest dagoela adieraziko dio solaskideari. Hala, toka eta

noka aritzeko ohituretan ere eragin nahi dugu, zukatik hikarako saltoa egin dezan horretarako gogoz dagoenak.

Ahobizi, Belarriprest eta entitate gisa izena emateko epea zabalik da. Oraindik Euskaraldian parte hartzeko pausoa eman ez duenari zer esango zenioke?

Animatzeko. Argi izan behar dugu Euskaraldia ariketa dela,

eta, beraz, parte hartzen duenak hura betetzeko konpromisoa hartzen duela. Hori esanda, argi dago hizkuntzaren erabileran eraginda euskararen normalkuntzan beste urrats bat emateko moduan izango garela. Norbanako zein entitateen beharra du Euskaraldiak arrakastatsua izan dadin, eta uste dugu Usurbilen horretarako nahia eta gaia badagoela.

“Jendeari, herrira etorri ahala, euskararatzeko aukera ematea da Udalaren helburua”

Euskara ikasteko aukera ugari daude. Udalak etorri berrientzat zein jubilatuentzat udal ikastaro bat iragarri du. Aurreko astean amaitu zen izen-ematea. Zer nolako harrera izan du?

Harrera bikaina izan da. Jubilatuen taldea hamalau bat lagunek osatzen dute, eta, etorri berriena, berriz, hamar inguruk. Lehena dagoeneko

egonkortu da, eta oso albiste pozgarria da hori, dinamika polita sortu den seinale baita. Etorri berrien taldea hasiberria dugu, baina ikusi besterik ez dago hasi orduko zenbat lagunek eman duten izena. Ateak zabalik izango ditu ikasturte osoan zehar; izan ere, jendeari etorri ahala euskararatzeko aukera ematea da Udalaren helburua.



Udalak bi ikastaro jarri ditu martxan: “Jubilatuena taldea hamalau bat lagunek osatzen dute; eta etorri berriena, hamar inguruk”.

Agenda

Jantzi kaleak Euskaraldiaren banderatzxoarekin

Euskaraldiak leiho, balkoi eta erakusleihoetan jartzeko moduko banderatzxoak plazaratu ditu eta modu onean eskuratu daitezke, 5 euroren truke.

“Banderatzxoaren truke egiten den ekarpenarekin Euskaraldia Euskal Herri osora zabaltzen lagunduko diguzu”, eta modu honetan “euskaltzaleen mugimendua indartuko duzu”. Beraz, eskuratu zure banderatzxo eta egin euskarari zure ekarpena.

Nola eskuratu dezaket?

Euskaraldiaren web orrialdeko dendan eskura daiteke banderatzxo. Bestelakorik



Eskuratu zure banderatzxo eta egin euskarari zure ekarpena.

ere topatuko duzue: kamisetak, txanodun jertseak, poltsak...

Internet helbide honetan topatuko duzue denda birtuala: denda.euskaraldia.eus



Azaroak 6, igandea

■ “Goiko gela”, euskarazko gospel emanaldia. Gospelaren kantu klasiko ezagunenak moldatu eta euskaraz kantatuko dituzte. “Haur, gazte zein helduentzako moduko ikuskizun bizi eta alaia dugu.

Hizkuntz ohiturak kantuan ere aldatzeko aukera aproposa!”.

■ Zuzendaritza eta pianoa: Iñaki Miguel.

■ Abeslariak: Karlos Etxaniz, Jon Imanol Etxabe, Olatz Otxoa eta Santi Romano.

Entitateen izen-ematea urriaren 31n amaituko da

Euskaraldiarekin bat egin nahi duten entitateek epe-muga jakin bat dute: urriak 31 astelehena. Egun horretan amaituko da izen-ematea. Online egin behar da inskripzioa.

Entitate bat zer da? Taldeak, elkarteak, dendak, batzordeak, enpresak, asanbladak, federazioak... Lanean zein aisian batzen diren kolektiboak, euskaraz hitz egiteko Ariguneak sortzeko konpromisoa hartzen dutenak. Horiek dira entitateak.

Izen-ematea, online

Euskaraldiarekin bat egiteko asmoa du-



Iaz Usurbilgo 29 entitate animatu ziren. Argazkian, Lanbide Eskolako ordezkariak.

tenek web orrialde honen bidez eman behar dute izena: <http://ariguneak.euskaraldia.eus/izen-ematea/>

Azaroak 18, ostirala

■ Euskaraldiaren hasiera. “Ahobizi eta Belarriprestak, nork bere roletik aritzeko unea!”.

Azaroak 20, igandea

■ Euskaraldia plazara. Zumarte Musika Eskolako eta Orbeldi Dantza Eskolako kideen emanaldia.

Abenduak 3, larunbata

■ Euskaraldiko gala. “Amaiera doto-rea emango diogu aurtengo edizioari Aginagako Eliza Zaharrean. Hainbat artistarekin gaupasa ederra egiteko parada”.

noqua

Argitalpen berezia
Argitaratzailea: NOAUA!
Kultur Elkarteak.
Sustatzailea: Usurbilgo Udala.
Elkarteak lehenakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.eus
Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noa.eus



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari:

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu: Ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia: Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi parte hartzen ari zarela.

Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz:

Komunikazioa bermatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari:

Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak.

Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari!:

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).



euskaraldia.eus

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Eman izena, parte hartu Euskaraldian.

